

EZER EZ DA BETIKO

Naia Ordorika Azkarate
Gernika-Lumo

Zer da bizitza zu gabe,
duzun izena duzula,
zauden tokian zaudela?
Zerbaitengatik deitzen dizugu ilusio,
errealak ez zarelako.
Gure gogoaren baitan
sortutako produktu bat.
Besterik gabe.
Gure garuna, labirinto
amaigabe batean galdua,
buelta eta buelta,
inora heldu gabe.
Gaur, atea itxi dizkidazu,
ilusiorako atea,
nire helmugara
iristeko atea.
Ez zara helduko,
ez zara helduko inola ere.
Xuxurlatzen dit ahots isildu batek.
Baina nik gogoan dut oraindik,
gogoan dut azken agur hura.

Zailena ez da lehen besarkada,
azkena baizik.
Egun hartan biok ginen bat.
Sudurra sudurrarekin,
eskua eskuarekin,
egun hartan biok bat ginen.
Aldi berean hain hurbil
eta hain urrun.
Momentu hartan,
dena guztiz aldatu zen.
Lehen malkoa masail gainean,
begiak guztiz distiratsu.
Malko gehiago zetozen jarraian,
Baina ez, gogor eutsi nion.
Milaka arrazoi nituen
negarrari emateko.
ilusio faltsuak,
agindutako amaiera gabeko istorioak,
irribarre behartuak,
eta neure barrenean
gatibu neuzkan gauza franko.
Momentu hartan,
lerroa gurutzatzeraz nindoan,
maitasuna eta gorrotoaren
arteko lerro mehe hura.
Gaur, nire ametsei,
zu beraien protagonista
izatea eskatzen diet.
Gaur, zeruko izarrei,
zu nire ondoan jartzeko
erregutzen diet.

Gaur, arrenka eskatzen dut
zure azken fereka,
zure azken musua,
zure azken laztana,
azken aldiz sentitzea.
Orain inori axola
ez banio bezala sentitzen naiz.
Hain hutsal urakan bateko
hasperen bat bezala.
Baina ez ditut
inon, inoiz, inola, zure azken
hitzak ahantziko:
Ezer ez da betiko.